

MAHATS-JANA ETA «BALTSEO TXIKIA»

Trikitilarien lehen txapelketa 1970. urtean egin zen Trinitate plazan eta sarrerak agortu egin ziren, bi mila lagun sartu ziren barruan eta beste hainbeste edo gehiago gelditu ziren kanpoan. Talde batzuk sarrerako burdinazko hesia astindu eta botatzen saiatu ziren, rockaren historiako pasadizo zenbait imitatuz. Entzun izan dudanez, garaiko egunkariek ez zioten gertakariari aipamenik eskaini.

Duela aste batzuk hil zen Tomas Zubizarreta *Zendoia* trikitilaria eta komunikabide guztiek egin diote leku bat, bazterrean bada ere. Batzuk orrialde erdi bat ematera iritsi dira, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak bidalitako oharra errepikatuz izan bada ere. Zendoiairen bizitza Azkoitiko Martirieta auzoari estu lotua dago.

Azkoitiko Udalak 1955ean baimendu zuen dantza lotua, inguruko herrietan baimenduta zegoelako. Baina bertako parrokoak elizako sarrera ukatu zien alkateari eta zinegotziei, eta jauna hartzea alkatearen bi semeei. Alkateak inon diren ate guztiak jo zituen, Burgosko artzapezpikuarengana ere iritsi zen, baina alferrik, hiru urte behar izan zituen elizarako baimena lortzeko. Dantza lotua baimendurik geratu zen herrian, baina ez

Joxean Agirre

Duela aste batzuk hil zen Tomas Zubizarreta *Zendoia* trikitilaria. Trikitilarien txapelketek rockaren historiaren zenbait pasarte imitatzen zituzten garaia ordezkariz zen *Zendoia*. Bere bizitza, *Epelderena* eta beste askorena bezalaxe, Azkoitiko Martirieta auzoari lotua dago eta letra txikian idatzi ohi den historiaren pasadizo eta kontakizun interesgarri asko biltzen ditu.

auzo batzuetan. Martirietan, esate baterako, joan de mendearen lehen erdian trikitiaren feudo izandako gunean, Don Esteban apaizak agintzen zuen. Iazko udan Kepa Junkerarentzat “Trikitixaren historia laburra” idazten ari nintzela Tomas Soraluze *Epelde* berak kontatu zidanez, auzokoak elkartu eta 1961ean ireki zuten Martirietako errepidea auzolanean. Eta apaizari Vespa bat oparitu zioten gora eta behera ibil zedin. Baina apaizaren eta gazteen arteko tirabirak gero eta gogorragoak ziren. Azkoitian dantza lotua baimendu eta hamar urtera, 1965ean, hiru bikotek “baltseo txikia” (fandangoaren zati kantatua elkarri lotuta egitea, formula hibrido bat alegia) egitea erabaki zuten apaizaren aurrean, probokazio gisa. Epeldereren etxean egin zuten entrenamendua, igande goizean egin zuten lehen saioa auzoko tabernan, eta, arratsaldean, Don Esteban tabernara sartu zenean, haren aurrean egin zuten jen-



daurreko bigarren saioa. Hiru neskek elizako kongregaziotik bota zituen, apaizak ulertu baitzuen errua emakumeek zutela.

Zertzelada jakingarri hauek idatzita daude gutxi edo gehiago. Hor daude Laxaro Azkunereren eta Gantzarainen liburuak eta lehen aipatu dudana Kepa Junkerarentzat egindakoa. Liburutik kanpo gelditu zen kontu batekin gogoratu naiz, ordea, Zendoiairen heriotzarekin eta merezi du aipatzea. Epeldek kontatu zidan garaiko gorabeherak aipatzen ari zela. Udazkena iristean igande arratsaldetan tarteka gazteek mahats-janak antolatzen omen zituzten. «Mahats-janak?», galdetu nion, ostra-janak gutxi, baina era guztietako janak egindakoa baikara, asto-janak esate baterako Aizarnan, baina mahats-janik sekula ez. Poetikoa izan behar duela, pentsatu nuen nirekiko, erotikoa ere bai, zuri asko gustatzen zaizun neska edo mutil bati mahats aleak nola jaten dituen begira egotea igande arratsalde batez. Seguru nago «baltseo txikia» egitearen ideia mahats-jan horietako batean sortuko zela.

Eta, zer arraiol, ume garaiko kontuekin hasi garenez, garai horretako zertzelada batekin gogoratu naiz, orain adinaren distantziarik begiratu ederra iruditzen zaidan pasadizo batekin. Udan Itziarko

Alboko orrialdean Tomas Zubizarreta «Zendoia» trikitilaria, duela aste batzuk zendu zena. Goiko aldean, garai bateko erromeria giroa Elgoibarko San Pedro auzoan.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS - GAUR8

Endoiara joaten nintzen lehengusuen etxean aste batzuk igarotzera. Nik 8-9 urte nituen. Gazteak igande arratsaldean elkarrekin pasa zitzaten gramola bat (disco-jogailu bat) erosi zuten eta maistra egoten zen diskoak jartzen igande arratsaldetan. Neskek elkarrekin egiten zuten dantza mutilek frontoian pilotan jarraitzen zuten bitartean, harik eta ilunabarra iristean elkarrekin etxera abiatu arte.

Ni mutikoa nintzen ez nintzen gehiegi enteratzen zer trikimailu zerabilizaten gazte haiek elkarren artean. Dakidana da apaiza bere Lanbretarekin errepidean gora sumatzean denak korrika errepidetik atera eta sastraka artean ezkutatzen ginela eta motoaren hotsa desagertzean igotzen ginela berriro errepidera. Une hori, une magiko bezain inozo hori, uste dut, izaten zela igande arratsaldeko ederrena. Hala izaten zen behintzat niretzat. Antzeko zerbait sentituko du Martirietako jendeak gaur aspaldiko mahats-jan haiek gogoratzen dituenean.



Azkoitiko Udalak 1955ean baimendu zuen dantza lotua, inguruko herrietan baimenduta zegoelako. Baina bertako parrokoak elizako sarrera ukatu zien alkateari eta zinegotziei, eta jauna hartzea alkatearen bi semeei

Azkoitian dantza lotua baimendu eta hamar urtera, 1965ean, hiru bikotek «baltseo txikia» (fandangoaren zati kantatua elkarri lotuta egitea, formula hibrido bat alegia) egitea erabaki zuten apaizaren aurrean, probokazio gisa

Ikusi nahi ez duenak baino...

**Xabier Mikel
Errekondo**

Begi aurrean gertatzen ari denaz ez dugu jabetu nahi. Beste aldera dugu begiratzen. Gizartea anitza bezain aberatsa dela esan, baina azaletik baino ez diogu heltzen, modan dagoen baieztapen soila balitz bezala. Egunerokoan, aldiz, gehienetan konturatu gabe bada ere, bereizketak ditugu egiten. Bazterketa ez esatearren.

Izan gazte zein heldu, edozein generoko eta jatorriko, edo izan desgaitasunen bat, pertsona orok dugu osatzen gizartea. Bakoitza pertsona ezberdina da, bere gabezia eta gaitasunekin, baina herritar gisa berdin-berdinak gara. Eskubide eta aukera berdinekoak. Hitz hutsak, ez baititugu betearazten ez betetzen.

Norbanakoak hauskorak gara, maila batean edo bestean mendekotasun egoeran bizi gara. Komeni zaigu ahalik eta arinen barneratzea. Elkarmendekotasuna gizartearen ezaugarri propioa da.

Pasa den igandean Pausoka Egunean ibili nintzen. Ehunka pertsona eta Maria eta beste hainbat izugarritzko gurasoen artean. Gabezia larriak dituzten haurren bizitza ikusgai jartzeko eta dirua biltzeko ekintza anitzeko jai egun koloretsua. Gipuzkoan desgaitasunaren inguruan lan egiten duten erakundeak ehundik gora dira. Gureak, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federakundea, Garagune, FEDER, Atzegi... Jakina, beren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen egoera hobetzeko ahaleginak egiten dituz-

te guztiek. Baliabide humano eta tekniko nahikoak bilatzen, bizi baldintza duina izan dezaten. Sinpleki, gizartean, gure herrian bat gehiago izan ahal daitezen. Gabeziei erreparatu beharrean, gaitasunak dituzten pertsonak bezala ikusiak izan daitezten. Ez al du ekarpen ordainezina egin Beethovenek gorraizea izan arren? Edo, Rixar Oribek itzeleko baloreak erakutsi?

Garaia da itsuarena egiteari utzi eta begi aurrean gertatzen ari denaz jabetu gaitzen. Hautsi arazoak dituzten «horiek» eta «gu» arteko bereizketa eta herritar berdinez eraiki dezagun gizarte inklusiboa. Nire zorionik beroena aurtengo Kilometroak jaia-ri urte osoan herri eredu inklusiboaren alde egindako aparteko lan ausartagatik. •